Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Guillaume Irigaray

Ahatsa-Altzieta-Bazkazane, Nafarroa Beherea (1931)

Aurkibidea

Biografia

Guillaume Ahatsa Irioinian sortu zen 1931n, zazpi haurreko familia batean (zazpigarrena hiru urtetan zendu zen). Bere arreba zaharrenak hartu zuen baserriko segida (gaur egun honen semeak egin duen bezala). Guillaumek eta beste bi haurride mutxurdin eta donadoek Irioinian bizitzen segitu dute. Hamalau urte zituenetik (1945), Guillaume familiako artzaina izan da Gasnategin (Iratin).

Zintak

AHA-003

- **Proiektua**: Euskal kultur erakundearen artxiboak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lekumberri, Terexa
- **Data**: 2008-09-08
- **Iraupena**: 35 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Ahatsako herria 1940. hamarkadan

- **Erref**: AHA-003/001
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Guillaume Irigaray, Ahatsa Irioinian sorturik 1931an, herriko eskolan ibilia da. Laurogoi haur ziren garai hartan, mutiko-neskak nahasirik 2 eskoletan (handiena eta ttipiena). Herrian baziren ere besteak beste ahotza, bi mahasturu, dendaria, eiherazaina, serora, bi ostatu.

2. Iratiko bazkak 1940-1950. hamarkadetan

- **Erref**: AHA-003/002
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:02:43. **Bukatu**: 00:06:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:
Ahatsako laborari etxe guziek ardiak bazketara igortzen zuzten. Artzaina izan ziteken etxeko semea edo mutila, edo batzuetan ere beste etxola bateko artzaina.Ardiak maiatzaren lehenean igaiten ziren eta neguan jeusten. Irioineko Bordan, Gasnategin, ardietaz aparte baziren ere behiak, ahuntzak, xerriak eta astoa. Hauek urte guzian gainean egoiten ziren.

3. Artzainaren eguneroko bizia bortuan

- **Erref**: AHA-003/003
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:06:41. **Bukatu**: 00:10:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:
Urte guzian mendian egoten bazen (Guillaume Irigaray bezala), lan ezberdina zuen artzainak primadera-udan (ardi deizte, gasna egite) eta neguan (kabalen bazkatze, pentze zerratze). 1950tik hona, azkarki aldatu da artzainaren bizia eta lanmoldea.

4. Gasnaren egitea

- **Erref**: AHA-003/004
- **Iraupena**: 0:04:50. **Hasi**: 00:10:09. **Bukatu**: 00:14:59

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:
Guillaume Irigaray artzainak gasna egitearen urrats desberdinak deskribitzen dizkigu. Berantago, gasna egiteko molde berri bat sartu zen, Xiberoko moldea deitua.

5. Artilea

- **Erref**: AHA-003/005
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:14:59. **Bukatu**: 00:15:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:
Esneaz aparte, artileak ere bazuen bere balioa : saldua zen edo galtxa motxen egiteko erabilia.

6. Artzaina eta ardiaren arteko harremana

- **Erref**: AHA-003/006
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:15:58. **Bukatu**: 00:19:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:
Artzainak ardien deitzeko molde berezi bat ukan zezaken, itxuraren, jitearen, esnea emateko gaitasunaren arabera.Ardiaren eritasunak ere hurbiletik segitzen zituen.

7. Joareak

- **Erref**: AHA-003/007
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:19:47. **Bukatu**: 00:21:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:
Baziren bideko eta mendiko joareak : klaxkak (laukiak zirenak), kuxkulak edo ttunpak (errondak), joare luzeak. Joare egile bat bazen Donazaharren.

8. Gasnategi deitu tokiaren berezitasuna (Irati)

- **Erref**: AHA-003/008
- **Iraupena**: 0:04:22. **Hasi**: 00:21:42. **Bukatu**: 00:26:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:
1950. hamarkadan, 9 etxola baziren Gasnategin : artzainak hor bizi ziren urte guzian. Etxola horietarik 7 gelditzen dira gaurregun. Guillaume Irigaray-ek Gasnategi inguruko mendi mazelen izenak ematen dizkigu.

9. Gasnategitik hurbil, Iratin

- **Erref**: AHA-003/009
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:26:04. **Bukatu**: 00:28:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:
Salbatore kaperan urtero egiten da beila (besta berri aintzineko ostegunean) eta prozesionea (hamabost egun lehenago). Iratiko oihanak ere badu bere fama, besteak beste hortik tiratzen zen zurarentzat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-20

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com